


TABAKALERA



Memoria y futuro de Tabakalera

# EGIA *tik*

Tabakaleraren memoria eta etorkizuna **PRENTSA DOSSIERRA**

## **ERAKUSKETA TABAKALERAN**

Urriaren 24tik abenduaren 20ra

Asteazkenetik igandera

16:30 – 20:30

**SARRERA DOAN**

Ostirala, urriak 24

**11.00etan - Prentsaurrekoa**

**19:30ean – “Egiatik...” proiektuaren aurkezpena**

**20:00etan – Inaugurazio ekitaldia**

**Ostegunetan:** aurkezpenak, hitzaldiak eta eztabaidak, 19:30ean

**Ostiraletan:** bisitak eskolentzat Urtxintxa eskola aisialdi taldearen eskutik

**Asteburuetan:** bisita gidatuak eraikinean, 16:30ean (beharrezkoa da erreserbatzea: 608768507).

**+info:**

Rosa Zufía

[Komunikazioa@tabakalera.eu](mailto:Komunikazioa@tabakalera.eu)

943 011311

[www.tabakalera.eu](http://www.tabakalera.eu)



Tabakalera eraikinaren eta Egia auzoaren iraganari buruzko ikus-entzunezkoek eta argazkiek osatzen duten erakusketa abiapuntutzat hartuta, hainbat jarduera antolatuko ditugu, gure inguruarekin elkarriketa bideak eraiki, herritarren parte hartzea bultzatzeko plataforma bat sortu eta Tabakalerako proiektua komunikatzeko helburuarekin.

Erakusketak izaera dinamikoa izango du, eta denboran aurrea egin ahala, hainbat lan ildo paralelo gehituko zaizkio.

*Oroitzea, Ikustea, Entzutea eta Irudikatzea* dira jarduera horiek guztiak ardatz dituzten ideia nagusiak. Ikus-entzunezkoen eta argazkien erakusketarekin batera, Tabakalerako soinu mapa aurkeztuko da, ostegunetan aurkezpenak, hitzaldiak eta eztabaidak izango dira Tabakalerako zine aretoan, fabrikari grabatutako filmak eta bideo klipak proiektatuko dira, etab. Ostiral goizetan berriz, hezkuntza zentroi zuzendutako tailer didaktikoak antolatuko dira, eta asteburuetan, eraikina barrutik ezagutzeko aukera eskainiko dugu bisita gidatuetan. Bisitariak Tabakaleraren etorkizunari buruz duten iritzia azaldu dezaten, Tabakaleran bertan kiosko interaktibo bat kokatu dugu, eta iritzi horiek, nahiz erakusketaren edukiak edo egunez egun gertatzen denari buruzko berriak Tabakalerako web orrian zabaldutako *sitean* islaturik egongo dira.



Foto: DV Artxiboa



- **OROITU**  
**Fabrikaren eta auzoaren ikus-entzunezko memoria**

Hamabi bideoz osatutako erakusketak Tabakalerako bi patio handi hartu ditu. Paletekin eraikitako etxoletan fabrikako langile ohien eta Egiako auzotarren testigantzak proiektatzen dira eta horien bidez, bisitariak auzoaren eta tabako fabrikaren historia eta bilakaera oroitzeko edo ezagutzeko parada izango dute. Erakusketak hainbat auzotarren laguntzari esker bildu ahal izan diren famili albumetako argazki zaharrak ere erakusten ditu.

Ikus-entzunezko lekukotasunak eta argazkien bilketa Iñigo Royok eta Marian Larzabalek osatzen duten Okupgraf kolektiboak burututako lanak izan dira, Dandai Egiako emakumeen elkartearen laguntzarekin.

Erakusketari loturik antolatu diren jarduera paraleloen artean, azaroaren 20, ostegunarekin, Joseba Intxausti historialariak, Egiako auzoaren historiari eta bilakaerari buruzko hitzaldia eskainiko du.



Tabakalerako langile ohiak:  
Coro Etxeberria, Pili Alonso,  
Maite López eta Paki Fernández



Alfredo Sopena, Egiako auzotarra

- IKUSI

“Egiatik. Tabakaleraren memoria eta etorkizuna” erakusketak auzoa nahiz eraikina bera ikusteko modu berriak eskainiko ditu.

Alde batetik, Gipuzkoako Argazkilarien Elkarteko kideek fabrikako espazioetan barrena argazkiak ateratzeko aukera izango dute, eta bestetik, auzotarren artean deialdia luzatuko da Egia auzoko txokoen argazkiak atera ditzaten. Ekimen horien emaitzak, Tabakalerako zine aretoan erakutsiko dira erakusketaren baitan.



Bestalde, azken urte hauetan, tabako fabrika izan zenaren espazioak, beste hainbat gauzen artean, zenbait film, iragarki eta bideo klipen eszenategi izan dira. Azaroaren 27an ikus-entzunezko ekoizpen horietako batzuen egileek euren lanak aurkeztuko dituzte ikusleei Tabakaleraren ikuspegi ezezagun eta berriekin gozatzeko aukera eskainiz.

Cotton Candy film laburraren errodailea

Erakusketa irauten duen bitartean, fabrika barrutik ezagutzeko aukera ere eskainiko dugu, Kutxaren laguntzarekin asteburuetarako antolatu ditugun bisita gidatuetan.



Tabakalerako galeriak



- ENTZUN

Behin hasierako ikus-entzunezkoen eta argazkien erakusketa martxan dagoenean, urriaren 30ean, "Belarriz" izeneko soinu proiektua inauguratuko da, eta egitasmo horren barruan, Tabakalerako Soinu Mapa.

Egitasmo honek Tabakaleraren eraikinak bere hormen artean gordetzen duen memoria erakustea du helburu, bidenabar gure memoria osatzen duten sinuen inguruan pentsarazteko aukera emateko. Oinarrian soinu bidez eraikinaren eta bere ingurunearen potreta bat osatzeko iakarra da.

Egitasmo hau Xabier Erkizia eta Iñigo Telletxea soinu artistek urte oso batean zehar egindako soinu bilketa lanaren emaitza da. Eraikina belarri bidez ezagutzeko gonbidapena da, bere berezko soinuak, eta Donostiako soinukerak biltzen ditu, beti ere Tabakaleraren belarriz jasoak.

Bestalde, abenduaren 6an eta 13an, larunbatarekin, soinu mapa sortu duen lantaldeak haurrentzat soinu tailerrak egingo ditu, inguruaren soinu mapak osatzea eta soinurik esanguratsuenak grabatzea helburu hartuta.



Xabier Erkizia Tabakaleako soinuak grabatzen

- IRUDIKATU

Oroitzeaz, ikusteaz eta entzuteaz gain, "Egiatik. Tabakaleraren memoria eta etorkizuna" erakusketak tarte zabalduko dio irudikatzeari eta etorkizunean ikusizko kulturaren fabrika izango denari buruz eztabaidatzeari. Hiritarrei Tabakalerako proiektua aurkezteko unea izango da eta baita inguratzen direnen iritzia jasotzekoa ere, bai aurkezpenen osteko eztabaida tarteetan, eta baita Tabakaleran kokatu den kiosko interaktiboaren bidez ere. Bisitariak "Zer nahiko zenuke aurkitu Tabakaleran?" galderari erantzun ahal izango diote, eta eurenak nahiz gainontzeko erabiltzaileen iritzia Tabakalerako web orrian ikusteko aukera izango dute.

Azkenik, erakusketari loturiko jarduera paraleloek tarte bat eskainiko diote EHUko arkitektura ikasleek Tabakalerari buruz egindako lanen aurkezpenari.



## JARDUEREN EGITARUA

Ostiral goizetan bisitak hezkuntza zentroentzat

Asteburuetan, 16:30ean, bisitak eraikinean (beharrezkoa da erreserbatzea: 608768507)

### URRIA

- Ostirala, 24**      **11,00** Prentsaurrekoa
- 19,30** Tabakalera eta Egia auzoari buruzko **Egiatik** ikus-entzunezko proiektuaren aurkezpena (Okupgraf: Iñigo Royo eta Marian Larzabal)
- 20,00** Inaugurazio ekitaldia
- Osteguna, 30**      **19,30** Tabakalerako Soinu Maparen aurkezpena Xabier Erkizia, Iñigo Telletxea, Xavier Balderas eta Enrike Hurtadoren eskutik

### AZAROA

- Larunbata, 1**      **10,00-14,00** Argazki Rallya Tabakaleran. Izen-ematea: Gipuzkoako Argazkilari  
**Igandea, 2**      Elkartean
- Osteguna, 6**      **19,30** Tabakaleraren etorkizunari buruzko aurkezpena eta eztabaida Joxean Muñoz zentroko zuzendari nagusiaren eskutik.
- Osteguna, 20**      **19,30** Egiako historiari buruzko hitzaldia Joseba Intxausti historialariarekin
- Osteguna, 27**      **19,30** Tabakaleran sortutako film eta bideo klipen aurkezpena, egileen eskutik.

### ABENDUA

- Osteguna, 4**      **19,30.** EHUko Arkitektura ikasleek Tabakalerari buruz egindako lanen aurkezpena.
- Larunbata, 6**      **11,00-13,00.** Soinu tailerra haurrentzat Tabakalerako Soinu Maparen sortzaileekin
- Osteguna, 11**      **19,30.** Argazki rallyan egindako lanen aurkezpena
- Larunbata, 13**      **11,00-13,00.** Soinu tailerra haurrentzat Tabakalerako Soinu Maparen sortzaileekin
- Osteguna, 18**      **19,30.** Tabakaleraren etorkizunari buruzko aurkezpena eta eztabaida Joxean Muñoz zentroko zuzendari nagusiaren eskutik.
- Larunbata, 20**      **19,30 ERAKUSKETAREN ITXIERA**

\* Auzotarrek ateratako egungo Egiako argazkien aurkezpena – data zehazteke

